

Getxo >MEETING<

Getxomeeting, ekainaren 22a: Sormena lantzen

Getxoko ekintzaileen azken topaketa uda baino lehen. Getxomeeting espazioan sinergiak partekatzen ditugu, sarea osatzen dugu eta komunitatean ikasten dugu. Hilean bi ostegunetan egiten dira, txandakatuta, 12:00etatik 14:00etara.

Saioaren lehenengo zatian Getxomeetingi buruzko sarrera egin genuen, bat egin gura duen jendearentzat. Errepikatzen duten pertsonen euren esperientzia azaltzen dute. Gero parte hartzaileen eta euren proiektuen aurkezpena egin genuen, pixka bat hobeto ulertzeko elkar.

Lehenengo kontaktu bat egin genuen, pertsona sortzaileen ezaugarriez mintzatuz. Hainbat kontzeptu aipatu ziren: irekia izatea, erabakiak hartzeko joerarekin, proaktiboa, malgua, behatzailea... Nolakotasun horiek garatu behar omen dira sormena jorratu ahal izateko.

Gero, dinamika bat abian jarri genuen: pertsona bakoitzak, talde batean, bere talenturik sortzaileena garatu zuen, taldean zeuden elementuekin planteatutako erronka bati aterabidea emateko.

Prozesuaren gogoeta oso interesgarria izan zen. Bakoitzak paper bat jokatu zuen taldean, eta ikusi genuen nola jokatzeko duen bakoitzak kontrako testuinguru batean, hau da, denbora mugatuarekin, nola egiten zitzaion aurre erronkari, eta taldean lan egiteko orduan nola kudeatzen diren harremanak.

Kafe-orduaren aurreko ariketan atera genituen ondorioetako batzuk komentatu genituen, eta enpresen artean espazio informalago bat sortu zen.

Saioaren bigarren zatian beste ariketa bat egin genuen, ikusteko zein modutan sortu ahal diren garatu beharreko ideiak gure jarduerak iradokitzen dituzten hitzen bitartez.

Dinamikaren ondorio gisa, enpresek eta ekintzaileek eraman zituzten ideiak nabarmendu behar ditugu. Beste ikuspegi batzuetatik egindako ekarpenak, proiektu ezberdinetako jendea sartzeak ikuspegi ezberdinak ematen baititu. Itxuraz zentzurik ez daukaten berba zehaztatuz, garatzeko interesgarri diren ideiak eraman ziren.

Meetingetan finkatuta dauden pausetako bat ez epaitzea da: ez besteak, ez geure burua. Horrela, jarrera irekiagoa daukazu eta hasieran pentsatzen ez zenuen leku batetik ikusten dituzte gauzak.

Hori izan da azken saioa udaren amaierara arte. Hurrengoa irailaren 21ean izango da.

Gogoratu: izena eman behar duzu.

Izena emateko, mezu bat bidali dezakezu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora

Edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu.

Nahiago baduzu, Getxolanera ere bertaratu zaitezke (GetxoElkartegia; Ogoño, 1, Areeta).

Interesgarriak baderitzezu, gonbidatu norbait!

Bueltan egongo gara! Ondo pasa udan!